

TURISMOARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN GAINEKO TXOSTENA.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak eskatuta egin dugu, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari emandako eskumena baliatuz.

Txostenaren helburua da, batetik, 4/2005 Legearen 19. eta 20. artikuluetan eta Gobernu Kontseiluak 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiaren bitartez onartutako Jarraibideetan ezarritakoa behar bezala aplikatzen dela egiaztatzea, eta, bestetik, gai horiekin loturiko hobekuntzak proposatzea (Jarraibideak, genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko, eta gizonen eta emakumeen desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko).

Eskatutako txostena lege-aurreproiektuari buruzkoa da, zeinaren helburua hau baita: Euskadin jardura turistikoa arautzea, sektore turistikoa antolatzea eta diziplina ezartzea, eta administrazio turistikoen jarduteko printzipioak eta irizpideak ezartzea.

Etorkizuneko Lege hori honako hauei aplikatuko zaie: administrazio publikoei, organo publikoei, organismoiei eta Euskadin turismo arloko jardura betetzen duten sektore publikoko beste zenbait erakunderi; turismo arloko jardura eta

zerbitzuetako erabiltzaile diren pertsoneri; enpresa turistikoei; eta turismo arloan aritzen diren profesionaleri.

Beraz, xedapen orokor bat da, zer nolako genero-eragina duen ikusteko ebaluatu beharrekoa, lehenengo jarraibidearen 2.1. atalean ezarritakoarekin bat etorritz. Helburu horretarako, araua sustatu duen organoak generoaren araberrako eraginari buruzko txostena egin du, I. eranskinean ezarritako moduan.

Eraginari buruzko txostenean, diagnostiko bat egin da emakumeek eta gizonek sektore turistikoa duten egoera ezberdinari buruz. EAEn ostalaritzan ari diren langileen datuak eta jarduera profesional eta administraziokoetan ari diren langileen datuak eman dira, sexuaren arabera banakatuta. Halaber, 16 urtetik gorako populazio aktiboari buruzko datuak eman dira, sektore ekonomiko eta jardueraren arabera banatuta. Azkenik, Hotelari eta Turismo arloan Lanbide Heziketako ikasketari buruzko datuak eman dira.

Bestalde, Emakundek *"Euskadin erabakiak hartzeko esparruetan dauden emakume eta gizonei"* buruz egindako txostenetik ateratako hainbat datu eman dira. Datu horien arabera, hiru Lurralde Historikoetan helbideratuta dauden 103 elkarte profesionaletatik soilik % 12,6k dute emakume bat buruzagitza lanetan. Halaber, turismo arloan ari diren bi erakunde adierazgarrienen jarduera ekonomikoko zuzendaritza eta kudeaketa batzordearen osaera kontuan hartuz (NEKATUR eta ASOARTE), emakumeen presentzia handiagoa dela berretsi da. Azkenik, txostenean zehazten denez, Euskadin dauden eskualdeko lankidetzak turistikorako entitateen % 56an emakumeak daude buruzagitza lanetan.

Merkataritza eta Turismoko Sailburuordetzaren eraketari buruzko informazioa ematen da, sexuaren arabera banakatuta, erabakiak hartzerakoan dauden maila ezberdinak bereiziz.

Emandako datuak ikusirik, txostenean adierazten denez, emakumeek sektore turistikoan bizi duten egoera positiboa da (batez ere, *hoteletan, elikadurarekin lotutako beste zerbitzu batzuetan eta bidaiia-agentzietan*), zerbitzuetako beste zenbait sektorerekin alderatuta, non langabezian diren emakumeen ehuneko handiagoa baita gizonena baino. Haatik, interesgarria izango litzateke sektorean dauden desberdintzetan sakontzea; izan ere, esate baterako ostalaritza eta turismoko batez besteko soldatei buruzko datuek azaleratzen dutenez, emakumeen soldata apalagoa da gizonena baino. Horrenbestez, datu horiek hau adierazten dute: emakumearen presentzia adierazgarria bada ere, oraindik ere bada desberdintasunik.

Ildo horretatik, interesgarria izango litzateke analisi honetan sakontzea ahalbidetzeko datuak jasotzea: beren jarduera turismo arloan betetzen duten sektoreko erakundeetako zuzendaritza postuetan eta langileen artean dauden emakumeen presentzia eta partaidetzari buruzko datuak (ehunekotan), produktu turistikoen sorrera eta garapena sustatu duten emakumeei buruzko datuak (ehunekotan), enpresa turistikoko bateko emakume titularrei buruzko datuak (ehunetakotan) etab.

Halaber, interesgarria izango litzateke azterketan eskainitako jarduera eta zerbitzuetako erabiltzaileengan arreta modu zehatzagoan jartzea, eta baita alojamendurako establezimendu motatan ere; esate baterako, hotel erako

establezimenduen apartamendu turistikoen, campingen, nekazal turismoen eta landetxeen edota turismo arloko beste zenbait modalitateen sektorean, horietako egoera aztertuz:

- Alde batetik, emakume eta gizon erabiltzaileak kontuan hartuz (jatorria, adina, ezintasunak, errenta-maila, bakarka edo beste inorekin bidaiatzen duten, eta norekin, batez besteko egonaldia, etab.)
- Eta beste aldetik, emakume eta gizon jabedunak kontuan hartuz
- Halaber, interesgarria izango litzateke bi kolektiboek haiek ordezkatzeko dituzten elkarteetan duten presentzia eta erabakiak hartzeko ahalmena kontuan hartzea, eta baita Legea eratzeko prozesuan izandako partaidetza ere, sexuaren arabera banakatuta.

Gainera, Eraginari buruzko txostenean “*genero femeninoa*” aipatu beharrean “*sexu femeninoa*” jartzea gomendatzen da; izan ere, sexuak emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun fisikoei, anatomikoei eta fisiologikoei egiten die erreferentzia, baina ez ditu ezinbestean zehazten sexu bakoitzari gizarteak esleitzen dizkion jokabide femeninoa eta maskulinoa.

Arauren **edukiari** dagokionez, positiboki balioesten da Legearen aurreproiektu honetan 14. eta 15. artikuluetan arautzen diren neurriak sartzea; emakumeen eta gizonen irudia berdintasunezkoa, plurala eta ez estereotipatua izatea, eta zerbitzu turistiko ezberdinetako ikur, bereizgarri eta publizitatean lengoiaia sexista ez erabiltzea. Haatik, eta generoaren ikuspegia barneratzeko eginahalean aurrera begirako pausuak emateko, hobekuntza hauek proposatzen dira:

- 4/2005 Legearen 26.2. artikuluan xedatuari jarraituz, turismo arloan eskumena duen Sailak egindako publizitate-kanpainak diseinatu edo

gauzatzean, debekatu egingo da sexuaren arabera giza duintasunari dagokionez pertsonak gutxietsi edo goستن dituzten, edo pertsonak objektu sexual modura aurkezten dituzten, publizitate-iragarkiak egin, emititu eta erakustea.

- Halaber, gomendagarria litzateke genero-ikuspegia barneratzea Lurraldeko eta Sektoreko Planak diseinatu eta eratzerakoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak onartutako antolamendurako jomuga turistikoetako Plan Estrategikoetan.
- Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 23. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, gomendagarria izango litzateke beste atal bat (laugarrena) sartzea Legearen aurreproiektu honetako 6. artikuluan: kontsulta- edo aholkularitza-organoetan, Euskadiko Turismo Mahaian eta Turismoaren Behatokian, gizonen eta emakumeen kopurua orekatua izan dadin bermatuko da, eta trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumez eta gizonez osatuta egotea.
- Gogorarazten da zinpeko adierazpen bat jaso beharko dela Euskadiko Turismo arloko Administrazioak jarduera turistikoa abiarazteko eskabidearekin batera eskatu beharko duen dokumentazioaren barruan (Legearen aurreproiektuaren 20.5. artikulua); adierazpen horretan, jarduera abiarazi edo beteko duen enpresa turistiko bateko pertsona fisiko edo juridikoa sexu erako bazterkeriaren ondorioz (modu administratibo edo penalean) zigorturik ez dagoela egiaztatu beharko da. Hori guztia 5/2005 Legearen 3.1.c artikuluan xedatuari jarraikiz egingo da.

- Halaber, hau gogorarazten da: 4/2005 Legearen 2.3 artikuluen arabera, botere publiko guztiei eta botere publikoekin hitzarmenak edo laguntzak sinatzen dituzten entitate pribatu guztiei aplikatuko zaizkie 3., 16., 18.4. eta 23. artikulua, eta, ondorioz, ezinbestekoa izango dute datuak sexuaren arabera xehatuta edukitzea, hizkera ez-sexista erabiltzea eta zuzendaritza-organoetan emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izatea.
- Bestalde, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, ezinbestekoa izango da sexuaren aldaera sartzea Euskadiko Enpresa eta Jarduera Turistikoen Erregistroan eta, hala badagokio, informatika-aplikazioan. Izan ere, horrek ahalbidetuko du sexuaren arabera banakatuta jaso eta ustiari ahal izatea jarduera turistiko baten titular diren pertsona fisiko edo juridikoei buruzko datuak.
- Era berean, ikusi da alojamenturako establezimenduei buruzko datuak ez daudela sexuaren banakatuta (hotel, apartamentu turistiko, camping, nekazal turismo eta landetxe, aterpetxe eta abarrei buruzkoak). Hori dela eta, 4/2005 Legearen 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik, erabiltzaileen harrera eta sarrerarako prozeduran sexuaren aldaera jasotzea gomendatzen da; izan ere, informazio hori jaso eta ustiari ahal izango da, ahal den neurrian, eta, ondorioz, hobetu jakin izango dugu zein den emakume eta gizonen egoera.
- Turismo arloko enpresek diru-laguntzak edo beste laguntza batzuk eskatzen dituztenean, honako hauek balioetsiko dira: enpresa horiek emakume eta gizonen berdintasuna sustatzera bideratutako ekintzak

proposatzea; emakume eta gizonen berdintasunerako Plan bat izatea; lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko Plan bat izatea, eta Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundearen ziurtagiria izatea (Emakunde-Emakumeen Euskal Erakundeak ematen duena).

- Legearen 65. artikulua berridaztea proposatzen da, hau da, prestakuntzari buruzkoa. Horrela geratuko litzateke: “Euskadiko Administrazio turistikoak behar diren neurriak hartuko ditu lanbide turistikoari dagozkien jardueretako prestakuntza profesional arautua hobetu eta garatzeko; *besteak beste, lankidetzan aritzea genero-ikuspegia sartzeko eskumena duen administrazioarekin*”.

Azkenik, hizkera ez sexista erabiltzeko egindako ahalegina balioetsi da. Hala ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen 18.4. artikulua betez, ezinbestekoa da Legearen Aurreproiektuaren testuan soilik maskulinoz emandako hitzak gainbegiratu eta egokitzea (“el usuario”, “los profesionales”, “el prestador”, “el responsable”, “los comparecientes”, “los propietarios”, “los inspectores”, etab.). Lengoaia ez sexista erabiltzeko, lagungarri izan daitezke Emakunde-Emakumeen Euskal Erakundeak argitaratutako hainbat gidaliburu (Emakunderen web-orrialdean kontsulta daitezke).

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 20a.